unearen arabera gauzatuko da, baita
prozesu informatiko jakin batzuen
arabera ere.

Herri administrazioekin kontratatzeko
zerga betebeharrak eguneratuak
izateari buruzko informazioa
normalean berehala emango da (bi
ordu, gehienez), emaitza baiezkoa
bada.

8.- Emandako datuak hirugarren bati
lagatzeko aurreikuspena:

BAI, honen arabera:

Eragindako pertsonaren
baimena (baimen hori ziurtatzen
duen agiri eredia gehitzen da).

Lege babesa, honako
araudiak dioenez:

EZ:

9.- Emandako informaziora sarbidea
izateko baimena duten pertsonak:

- XXXXXXXXXXXXXXX

*sistemas para suministros de
información” que, estando disponible
y habilitado a estos efectos, resulte
más eficaz y conveniente en cada
momento.*

7. Periodicidad del suministro y
número de personas afectadas:
Aproximadamente 15
suministros/año.

En todo caso, la aplicación permite
realizar solicitudes todos los días
hábiles, si bien el suministro se
producirá dependiendo del tipo de
información solicitada y el momento
de la solicitud así como de
determinados procesos informáticos.

La información sobre estar al día en
obligaciones tributarias para contratar
con administraciones públicas se
suministra normalmente de inmediato
(máximo de 2 horas) si el resultado es
positivo.

8.- Previsión de ulteriores cesiones de
los datos suministrados:

Sí, en virtud de:

Autorización de la persona
afectada (se aporta el modelo de
documento en que se recoge tal
autorización).

Autorización legal contenida
en:

NO:

9.- Personas autorizadas para acceder a
la información suministrada:

- XXXXXXXXXXXXXXX

BITARTEKO IDAZKARI
KONTUHARTZAILEA
- XXXXXXXXXXXXXXX
OGASUNNEKO ADMINISTRARIA

BITARTEKO IDAZKARI
KONTUHARTZAILEA
- XXXXXXXXXXXXXXX
OGASUNNEKO ADMINISTRARIA

10.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa:

10.- Organo responsable de la gestión de usuarios y de la seguridad y del control de la información cedida:

- XXXXXXXXXXXXXXX
BITARTEKO IDAZKARI
KONTUHARTZAILEA

- XXXXXXXXXXXXXXX
BITARTEKO IDAZKARI
KONTUHARTZAILEA

11.- Solaskideak:

11.- Interlocutores/as:

- *Zuzenbide gaietarako:* Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXXXXX
- *Informatika gaietarako:* IZFE, SA / XXXXXXXXXXXXXXX.
- *Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...):* Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXXXXX

- *Para cuestiones jurídicas:* Servicios Técnicos, tlf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXXXXX
- *Para cuestiones informáticas:* IZFE, SA / XXXXXXXXXXXXXXX
- *Para otras cuestiones materiales (gestión ordinaria del suministro...):* Servicios Técnicos, tlf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXXXXX

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

Ambas partes se comprometen a mantener actualizados los datos contenidos en el presente anexo.

D-3 ERANSKINA. Gizarte zerbitzuen arloan dagozkion zereginak betetzeko zerga informazioa ematea.

1. Deskripzioa: Zerga informazioaren lagapena, Asteasuko Udalak gizarte zerbitzuen arloan esleituak dituen zereginak betetzeko (laguntzak banatzea). Lagapena "Gipuzkoataria" atari telematiko korporatiboan dagoen aplikazioa, ziurtagiriak Internet bidez lortzekoa, erabiliz gauzatzen da.

2. Informazio lagapenaren helburua: Egiaztatzea kasu bakoitzean bete beharrekoa den araudiak ezartzen dituen eskakizunak betetzen dituztela gizarte laguntza desberdinen eskatzaileek:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Gizarte larrialdiko laguntza
- Etxeko laguntza zerbitzua
- Beste batzuk

3. Arau oinarria:

Gizarte zerbitzuen arloan Asteasuko Udalak zein eskumen duen zehazten du ondoko araudiak:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa
- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, diru sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako.
- 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- Araudi propioa. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 92.1.I artikulua.
- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren Udal Ordenantza
- Julian Lizardi baserri babestuaren Udal Ordenantza

4. Datuen titularraren baimena:

Bai, udalak onartutako oinarri arautzaileetan jasota dagoen baimen klausularen bitartez.

Bai klausula hori bai laguntza eskatzeko formularioa aldeztu aurretik igortzea Ogasun eta Finantza Departamentura, nahitaezko baldintza izango da sarbideak baimentzeko.

Orobat, Ogasun eta Finantza Departamentuari adierazi behar zaio zer informazio eman zaien eskatzaileei, datu ekonomikoak lortzeko erari dagokionez, laguntzen onuradun izateko.

5. Eman beharreko informazioaren edukia:

“80 88 16 AHALMEN EKONOMIKOA” ziurtagirian jasotako informazioa.

Erantsita dago, beste agiri batean, eman beharreko zerga informazioari dagokion fitxa teknikoa. Bertan azaltzen da nola landu informazio hori, eta nola interpretatu behar diren haren eduki jakin batzuk.

6. Informazio lagapenerako prozedura:

Informazioaren lagapenerako honako sistema erabiliko da: *Eskabide eta kontsulta, informazio eskaera masibo bidez*

Informazioaren lagapenerako, eskabidearen fitxategia (.txt formatukoa) eta erantzunaren fitxategia (.pdf formatukoa) trukutzen dira. Erantzuna, zergadun bakoitzari buruz emandako informazioarekin, inprimatzeko modukoa.

Sistemak baimendutako erabiltzaile guztien autentifikazioa eskatuko du betiere, eta komunikazio segurua eta jakinarazitako datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu.

Informazioaren lagapenerako honako sistema erabiliko da: *ziurtagiri indibidualen eskaera eta eskurapena*

Informazioaren lagapenerako, erakunde hartzaileak izendatu duen langileari baimena emango zaio Interneten bidez zerga arloko datuen egiaztagiriak eskuratzeko aplikaziora sartzeko. Aplikazio hori herri administrazioentzat erabilgarri dago, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean.

Bide horretatik emandako informazioa inprimatzeko aukera dago (pdf formatuan ematen du), paperean edukitzea beharrezkoa izanez gero.

Horrek guztiak ez du eragotziko informazioa eskatzeko eta jasotzeko edo entregatzeko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela iritzita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

7. Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua:

Nolanahi ere, informazioaren lagapenaren aldizkakotasuna egunerokoa izango da, hein horretan, eskatutako informazioa eskaera egin eta biharamunerako eskuragarri izateko moduan.

8. Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena:

EZ

9. Emandako informaziora sarbidea izateko baimena duten pertsonak:

- XXXXXXXXXXXXX GIZARTE LANGILEA
- XXXXXXXXXXXXX ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

10. Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa (5. klausula):

- XXXXXXXXXXXXX BITARTEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEA

11. Solaskideak:

- Zuzenbide gaietarako: Zerbitzu Teknikoa, tf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXXX
- Informatika gaietarako: IZFE, SA / XXXXXXXXXXXXXXXXX
- Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...): Zerbitzu Teknikoa, tf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXXXXXXX

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

E-I ERANSKINA. Udal zerga, tasa eta prezio publikoak ordaintzeko diru-laguntzak eta hobariak

ANEXO E-I. Subvenciones y bonificaciones en impuestos, tasas y precios públicos municipales.

1. Deskribapena:

Asteasuko Udalari zerga informazioa lagatzea udal zergak, tasak eta prezio publikoak diruz-lagundu eta hobaritzeko kudeaketan esleitu zaizkion funtzioak betetzeko.

1. Descripción:

Suministro de información tributaria para el desempeño de las funciones que tiene encomendadas el Ayuntamiento de Asteasu en materia de gestión de subvenciones y bonificaciones en impuestos, tasas y precios públicos municipales.

2. Informazio lagapenaren helburua:

Egiaztatzea onuradunek bete egiten dituztela Asteasuko Udalak indarrean dituen udal zerga, tasa eta prezio publikoetan diru-laguntzak eta hobariak jasotzeko beharkizun ekonomikoak.

2. Finalidad del suministro:

Comprobar el cumplimiento de los requisitos económicos de las personas beneficiarias para acceder a las subvenciones y bonificaciones en impuestos, tasas y precios públicos municipales vigentes en el Ayuntamiento de Asteasu

3. Lagapena justifikatzen duen araudia:

Asteasuko Udalak gai honetan dauzkan eskumenak jasota daude bai

3. Justificación normativa:

Las competencias del Ayuntamiento de Asteasu en esta materia vienen atribuidas por las ordenanzas

unean uneko udal ordenantzetan eta bai arau hauetan:

- 7/1985 Legea, apirilak 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (25. art.)
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoa (uztailaren 10eko GAO, 130. zenb.).

Udal ordenantzetan edozein aldaketa gertatuz gero, Asteasuko Udala behartuta dago haren berri ematera lagapen honi eragiten badio. Eranskin hau sinatzeko egunean, ordenantzak hauek dira:

- Asteasuko Udaleko 2019ko Ordenantza fiskalak.
- Asteasuko Udaleko Diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzailea (2018/10/15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).
- Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa-arauak (2011/05/26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

4. Datuen titularraren baimena:

Bai, udalak onartutako eskaera-formularioan ageri den baimen klausularen bitartez.

Bai klausula hori bai laguntza eskatzeko formularioa aldeztu aurretik igortzea Ogasun eta Finantza Departamentura, nahitaezko baldintza izango da sarbideak baimentzeko.

municipales vigentes en cada momento y la siguiente normativa:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, (art. 25)
- Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa (BOG nº 130, de 10 de julio).

El Ayuntamiento de Asteasu comunicará cualquier modificación en las ordenanzas municipales que afectan al presente suministro. A día de su firma, las ordenanzas son las siguientes:

- *Ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Asteasu para 2019.*
- *Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Asteasu (Boletín Oficial de Gipuzkoa 15/10/2018).*
- *Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasa por suministro de agua (Boletín Oficial de Gipuzkoa 26/05/2011).*

4. Consentimiento de la persona titular de los datos:

Sí, a través de la cláusula de autorización incluida en el formulario de solicitud que aprueba el Ayuntamiento.

La mencionada cláusula, junto con el formulario aprobado para solicitar la ayuda, será remitida al Departamento de Hacienda y Finanzas como requisito previo a la autorización de los accesos.



ASTEASUKO UDALA
(GIPIZKOA)

5. Eman beharreko informazioaren edukia:

“308812 PFEZa. Aitorpenaren laburpena” ziurtagirian jasotako informazioa.

“708807 Ondasun Higiezinak: Hiri etxebizitzaren titularrak” ziurtagirian jasotako informazioa.

“708818 Ondasun Higiezinak: Gipuzkoatik kanpoko etxebizitza” ziurtagirian jasotako informazioa.

5. Contenido de la información a suministrar:

Información contenida en el modelo de certificado “308812 IRPF. Resumen declaración”.

Información contenida en el modelo de certificado “708807 Bienes Inmuebles: Titular de viviendas urbanas”.

Información contenida en el modelo de certificado “708818 Bienes Inmuebles: Viviendas fuera de Gipuzkoa”.

6. Informazioa emateko prozedura:

Informazio lagapena egiteko, sistema hau erabiliko da: *banakako ziurtagiriak eskatuz eta eskuratuz*.

Informazio lagapen honetan, entitate lagapendunak izendatutako langileak baimendurik geratzen dira zerga datuen egiaztatzeak Internet bidez lortzeko aplikazioan sar daitezten. Aplikazio hori herri administrazioentzat erabilgarri dago, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean.

Horrela emandako informazioa inprimatu egin daiteke, paperean eduki beharra dagoenerako (pdf formatuan ematen da).

Informazio lagapenerako hemen aipatzen den sistema hori izanik ere, *“Informazioa emateko sistemen fitxa teknikoan”* jasota dagoen beste edozein bitartekoz ere eman daiteke informazioa, betiere, horretarako

6. Procedimiento para el suministro:

El suministro de información se producirá mediante el sistema de *Solicitud y obtención de certificados individuales*.

Se suministra la información autorizando al personal designado por la entidad cesionaria el acceso a la aplicación de obtención de documentos acreditativos de datos tributarios a través de Internet, disponible para las administraciones públicas en la web del Departamento de Hacienda y Finanzas.

La información así suministrada es susceptible de impresión (se facilita en formato pdf), por si fuera necesaria su constancia en papel.

Independientemente del sistema de suministro de información aquí recogido, la información se podrá suministrar por cualquier otro medio recogido en la *“Ficha técnica de sistemas para suministros de*

propio gaituta eta eskura jarrita badago eta une bakoitzean eraginkorra eta egokiena bada.

información que, estando disponible y habilitado a estos efectos, resulte más eficaz y conveniente en cada momento.

7. Lagapenaren maiztasuna eta ukitutako pertsona kopurua:

Ez da ahal izan aurreikuspen bat adierazi: eskaera kopurua, maiztasuna eta urteko sasoi jakin batzuetan gertatuko ote diren.

7. Periodicidad del suministro y número de personas afectadas:

No es posible señalar como previsión el número de solicitudes, la periodicidad y si se producirán en determinadas épocas del año.

8. Emandako datuak hirugarrengoei lagatzeko aurreikuspena:

X EZ

8. Previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados:

X NO

9. Emandako informazioan sartzeko baimendutako pertsonak:

- XXXXXXXXXXXX BITARTEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEA
- XXXXXXXXXXXX OGASUNNEKO ADMINISTRARIA
- XXXXXXXXXXXX ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

9. Personas autorizadas para acceder a la información suministrada:

- XXXXXXXXXXXX SECRETARIO INTERVENTOR INTERINO
- XXXXXXXXXXXX ADMINISTRATIVO DE HACIENDA
- XXXXXXXXXXXX AUXILIAR ADMINISTRATIVA

10. Erabiltzaileen kudeaketaz eta utzitako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa:

- XXXXXXXXXXXX BITARTEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEA

10. Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida:

- XXXXXXXX SECRETARIO INTERVENTOR INTERINO

11. Solaskideak:

- *Zuzenbide gaietarako:* Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXX

11. Interlocutores:

- *Para cuestiones jurídicas:* Servicios Técnicos, tlf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXX



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- *Informatika gaietarako:* IZFE, SA / XXXXXXXXXXXX.
- *Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...):* Zerbitzu Teknikoa, tf. 902 100 040 / XXXXXXXXXXXX
- *Para cuestiones informáticas:* IZFE, SA / XXXXXXXXXXXX.
- *Para otras cuestiones materiales (gestión ordinaria del suministro...):* Servicios Técnicos, tf. 902 100 040 / XXXXXXXXX

Alde biek eranskin honetan jasotako datuak eguneratzeko konpromisoa hartzen dute.

Ambas partes se comprometen a mantener actualizados los datos contenidos en el presente anexo.

ZAZPIGARREN PUNTUA

Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak: %2,25eko igoera onestea

2018/12/27an argitaratu zen EAOn 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretua: horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019. urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

Hain zuzen ere, 24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3.Bi artikulua honela xedatzen du:

- 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietako ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei euren dagokienez, eta bai langileria antzintasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lanarietako desberdinak, orobat; lanariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileria inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.

- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean

apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulua aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldez aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

- Gainera, soldata masaren ehuneko 0,25eko igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, honakoak egin ahal izateko: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berraztertu, lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin. Artikulu honetan 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoeran zehaztutako Administrazioetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori ehuneko 0,3ra bitartekoa izan daiteke.

2019-01-22ko zirkularrean jakinarazi zuenez, EUDELe gomendio hau egin du:

- Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren inguruan, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak lege onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarieko %2,25.
- Aipatutako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, une honetan ez da ezagutzen sortutako soldata masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori dela-eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespena emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019/07/01etik aurrera gehituko litzateke.
- Aipatutako 3. Bi artikulua azken paragrafoarekin lotuta, eta udal autonomiari kalterik eragin gabe, 2018ko ekitaldian* aurrekontu superabit egoera izan duten Euskadiko udalei gomendatzen diegu, euren finantza eta aurrekontu aukeren neurrian, soldata masaren 0,3ko igoera gehigarria baimentzeko. Aipaturiko munta 3. artikulua Bi, azken paragrafoan, edo aplikatzekoa den beste edozeinetan jasotako lege-formulen bitartez banatuko da, hau guztia beti negoziazio kolektiboaren eta udal autonomiaren barruan. 2018ko ekitaldian



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

aurrekontu superabit egoerarik bizi izan ez duten udaletarako, EUDELen gomendioa da igoera hori soldata masaren %0,25ekoa izatea.

Aldi berean, Asteasuko Alkate andreak jasotzen dituen ordain sariak %2,25eko igoera izatea proposatu da, azaroaren 17ko 13/2014 Arau Foralaren 5. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75 bis artikuluan jasotakoarekin bat.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio-Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. 2019ko ekitaldian, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko %2,25.

BIGARRENA. 2019ko ekitaldian, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, Asteasuko Alkate andrearen ordainsariek %2,25eko igoera izatea, azaroaren 17ko 13/2014 Arau Foralaren 5. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75 bis artikuluan jasotakoarekin bat.

HIRUGARRENA. 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuan jasotako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulua aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldez aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

Mozioak:

- **2019/01: Martxoak 8**

ASTEASU BATUZ Udal Taldeak aurkeztutakoa.

BIZITZAK ERDIGUNERA!

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borrokak atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, "Bizitzak Erdigunera!" lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdigunearan jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunearan jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezen. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, ASTEASUko Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

-ASTEASUko Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.

- ASTEASUko Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.

-ASTEASUko Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- **2019/02: Esan baietz adostasunari**

ASTEASU BATUZ Udal Taldeak aurkeztutakoa.

Jendarteak ez du onartzen Donostiako (Zubieta) erraustegia martxa jartzeak osasunean eta ingurugiroan sortzen duen arriskua.

Arrisku horretaz ohartarazten dute egin diren ikerketek; batez ere, "Erraustegiaren arriskuaren hautematea" izeneko txostenak, Biodonostiak eta Eusko Jauriaritzako Gipuzkoako osasun zuzendariordeak idatzita.

Hitzartu prozesu sozialak hondakinen kudeaketa osasuntsu eta jasangarriaren inguruko eztabaida sortu du, baita eraginkorrenak diren neurri politikoak zehaztu ere. Ikuspegi demokratiko sakon batekin egindako ekimena izan da, eta profesional anitzek osatutako Berme Batzordearen oniritzia izan du.

Herritarrek ondutako 2019-2030 Hiri Hondakien Kudeaketarako Plana ekimen horren emaitza eta ondorioa izan da. Bertan, jendarteak lehenetsitako prebentzio printzipioan oinarrituz, alternatiba teknikoa eta ekonomikoki bideragarria jasotzen da.

Azken hamabi urteotako agenda politikoa baldintzatu duen hondakinen gatazkak behin betiko irtenbide bakarra du: erakundeen eta antolatutako jendarte zibilaren arteko elkarrizketa eta elkarlana. Erraustegia martxan jartzeko alde bakarreko irtenbideak ez du ixten ezta bideratzen ere, inondik inora, gatazka. Are okerrago: beste 35urteetarako luzatzen eta betikotzen du.

Osasuna, ingurugiroa, kohesioa eta bake soziala aukera bat merezi duten balioak dira. Horregatik guztiagatik behean sinatzen dugunok:

LEHENENIK.-Bat egiten dugu Hitzarturen Berme Batzordeak 2018ko abenduaren 29an Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari eta Batzar Orokorretako presidenteari egindako eskaerarekin, non Hitzarturen ordezkariarekin elkartzeari, ehundutako prozesua eta emaitzak aztertzea, eta elkarlanerako bideak ireki ditzatela eskatzen den; beti ere hondakinen kudeaketa osasuntsua eta jasangarria helburu izanik, eta adostasun sozial zabalean oinarrituta.

BIGARRENIK.-Bat egiten dugu GuraSOSek egin duen eskaerarekin; hots, erraustegian oinarritzen den Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren eztabaida eta onarpena gelditzea aipatutako elkarrizketa eta adostasun prozesua errazteko eta bideratzeko.

HIRUGARRENIK.-Bat egiten dugu GuraSOSek deitu duen manifestazioarekin. "Esan Baietz ADOSTASUNARI" lelopean, otsailaren 23an arratsaldeko 5etan Antiguako tuneletik irtengo da; eta jendarte osoari parte har dezan dei egiten diogu.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui)

Kontrako botuak: 1 (Uribe-Etxebarria)

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- **2019/03: Tolosaldea Sahararekin**

ASTEASU BATUZ Udal Taldeak aurkeztutakoa.

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Tolosaleako udalbatzei ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zampaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki,saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuai, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzeko duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenarekin bat etorriz, 2019ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera zuen udaletxean zintzilikatzea adostea.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:45 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2019ko otsailaren 25ean.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea